

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak jendaurrean jarri ditu Gizarteratzeko Errentaren eta Laneratzeko Laguntzen Foru Dekretuaren Proiektuaren zirriborroak herritarrek parte hartzeko

Pertsona onuradunak zenbait betebeharrak beteaztearen mende izango dira, eta familia-unitateko kideek beren gizarteratzea eta laneratzeko laguntzeko egin beharko dituzten jarraibideak eta jarduerak arautuko dira

Martes, 22 de mayo de 2012

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilari Elena Torres Mirandak gaur goizean aurkeztu du, [Gizarteratzeko Errenta arautzen duen foru-dekretuko proiektuaren zirriborroa](#) eta [Laneratzeko eta Enplegagarritasuna Hobetzea ezartzen duen foru-dekretuaren zirriborroa](#). Lehenengoa benetan gizarte.bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzat da, eta bigarrena, lanpostua galdu eta beren langabeziako prestazioak agortu dituztenentzat, baina lan-merkatura itzultzeko gaitasun osoa dutenak. Zirriborro horiek jendaurrean jarriko dira orain, horiekin lotutako taldeek, alderdi politikoez, profesionalak eta herritarrek beren irizpenak egin ditzaten.

Gizarteratzeko errenta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez izapidetuko dira. Laneratzeko eta enplegagarritasuna hobetzeko laguntza, berriz, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez izapidetuko dira beste edozein erregistrotan bezala, edo Departamentuan bertan.

Gizarteratzeko Errenta

Gizarteratzeko Errenta prestazio ekonomiko bat da, alde batetik, funtsezko beharrak betetzeko, eta bestetik, bazterketa-arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea sustatzeko. Gaur aurkeztu den dekretuaren proiektuaren zirriborroa arautzen duen [1/2012/Foru Legearen, urtarrilaren 23koa](#), araudiaren garapena da. Gainera, [otsailaren 4tik, Foru Agindu](#) batek aparteko berritzeak eta aparteko hipotesiak arautzen ditu, Nafarroak behin betiko dekretuaren onespena ez duen bitartean.

Gizarteratzeko Errenta bermatutako prestazio bat da. Hura jasotzeko, honako baldintza hauek ezartzen dira: 25 urte baino gehiago izatea baina 65 urte baino gutxiago; Espainian legearen barnean bizitzea; eta Nafarroan errolatuta egoteaz gain, eskaera aurkeztu den egunaren aurretik gutxienez 24 hilabetez jarraian bertan bizi izan dela egiaztatzea. Nolanahi ere, adin, errentaren araberako diru-sarrera eta beste aparteko hipotesi batzuk ere onartzen dira, egoera konplikatuetan dauden pertsonen sarbidea errazteko.

Torres kontseilariak azaldu duenez, prestazioaren zenbatekoa 641,40 euroren artean (pertsonek batentzat) eta 962,10 euroren artean dabil (bost pertsona edo gehiagoko familia-unitateentzat). Sei hilabeteko hasierako aldi baterako ematen da eta sei hilabeteko aldietan berriro daiteke gehienez ere 24 hilabetera arte, nahiz eta jasotzeko aldia gaindi dezaketen aparteko hipotesiak ere badiren.

Dekretuak gizarteratzeko errentaren onuradun diren pertsonen bete beharreko baldintzak ezartzen ditu. Haien artean, Nafarroan era eraginkorrean eta jarraian bizitzea jasotzen den aldi guztian zehar, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzailer moduan alta emanda jarraitzea edo dagokion Inkorporatzeko Akordioa izenpetu eta betetzea.

Oinarritzko Gizarte Zerbitzuek eta Departamentuak ere dagozkien jarduera eta berrazterketak egingo dituzte gizarteratzeko errenta hori ematea eragin zuten egoerei eusten zaiela egiaztatzeko.

Eskubidea galtzea ezartzen duten hipotesiak jasotzen dira baita ere, haien artean: erabiltzailearen bizi-baldintzak aldatzea, Nafarroatik kanpo bizitzen jartzea edo Gizarteratzeko edo Laneratzeko Akordioa ez betetzea. Akordio horren edukia da, hain zuzen, dekretuaren gai garrantzitsuenetako bat, garatzeko zain geratu baitzen.

Onuradunaren familia-unitatearen egoerak erabakiko du Gizarteratzeko Akordioa izenpetzea edo, hala badagokio, Laneratzeko Akordioa. Akordio horiek ezarriko dituzte familia-unitateko kideek egin beharreko jarraibide eta jarduerak beraien gizarteratzea eta laneratzea errazteko (okupazio-zentroetara joatea, hezkuntza eta prestakuntzako ezagutza berriak eskuratzea eta, hala badagokio, prestakuntza eta enplegurako sarbidea izatea).

Dekretuak ere jasotzen ditu, gizarteratzeko errenta jasotzen duten pertsonen zuzeneko kontratazioko diru-laguntzak, berriki Barcina Lehendakariak aurkeztutakoak; 3.800 euroko laguntzarekin, neurri horrek sustatzen du enpresa eta tokiko erakundeek gizarteratzeko errenta jasotzen duten pertsonak kontrata dezaten

Laneratzea eta enplegarritasuna hobetzeko laguntza

Laneratzea eta enplegarritasuna hobetzea, halaber, bermatutako prestazio bat da. Aldian behin ematen den laguntza da eta lanik ez eta langabeziako prestaziorik ez dutenentzat da; haren xedea lan-merkatura itzul daitezen da, eta laguntza hori ez da gizarteratzeko errentarekin bateragarria.

DFren proiektuak ere sartzeko baldintzak ezartzen ditu: 45 urte baino gehiago izatea eta 65 baino gutxiago, Nafarroan erroldatuta egotea eta eskaera aurkeztu den egunaren aurretik gutxienez 24 hilabetez jarraian bertan bizi izan dela egiaztatzea. Nolanahi ere, salbuespen batzuk ere finkatzen dira, adibidez, seme-alabak beren kargu dituzten 30 urte baino gehiagoko eta 45 urte baino gutxiagokoek jaso dezaten uztea.

Laguntza, oro har, hilean 641,40 eurokoa izango da, nahiz eta zenbatekoa igoko den familiako kide-kopuruaren arabera 833,82 euro arte beren kargu hiru edo seme-alaba gehiago badaude edota adin txikikoak hartuta badaude. 12 hilabeteko hasierako aldi baterako emango dira, eta sei hilabeteko aldietan berriro ahal izango da, gehienez ere 24 hilabetera arte. Nolanahi ere, laguntzak jaitsi egingo dira hamahirugarren hilabetetik aurrera.

Onuradunak diren pertsonen zenbait betebeharrak bete beharko dituzte, esate baterako: Nafarroan era eraginkorrean eta jarraian bizitzea, enpleguaren bilaketa aktiboa egitea, edo dagokion Laneratzeko Akordioa izenpetu eta betetzea.

Aurreko kasuan bezala, akordio hori dekretu honetan garatzen da behar den moduan, onuradunaren

berariazko konpromisoa jasoz akordio honen sinaduraren bitartez, hau da, egokiak iruditzen diren jarduerak egingo dituela bere gizarteratzea, prestakuntza eta enpleguaren bilaketa errazteko edo komunitatearen garapena errazteko. Alde horretatik, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ibilbide pertsonalizatuak egingo ditu eta, hasiera batean, sei hilabete baino gutxiagokoak izango dira.

Laguntza hori jasotzen duten pertsonen zuzeneko kontratazioa jasotzen dira, halaber, bai eta hitzarmenak izenpetzeko aukera ere laguntzen onuradunek parte har dezaketen komunitate-intereseko jarduerak garatzeko erakundeekin ere.

Azkenik, onuradunaren egoera egiaztatzeko jarduerak eta bere konpromisoen betetze-maila jasotzen dira, bai eta kautelaz bertan behera uzteko edo laguntza-eskubidea galtzeko jarduerak ere.